ERBESTEKO ELERTIAK

# ELAIA TA UŔETXINDOŔA

(GERKERATIK EUSKERATUA)

Urietako elaiak bein uŕin-uŕin egaz egin ebaŕ, eta lekaroan atxarteko zugatz-adaŕean uŕetxindoŕ eztaŕi-zolia aurkitu eban.

Uŕetxindor gaxoa, bere emaztea il yakola-ta, negaŕez zegoan. Elaiak esan eutson:

—Bizientzako maitagaŕi-oi, egundo lenengoz akust lekaro bakar-itun oneitan. Ator, ba, soloetara ta gizonen etxeetara, an geugaz batera biziko az eta orok maite izango abe ta. Lugiñai abestu egiek, ez basa-piztiei.

Uŕetxindor sama-zoliak, baña, yardetsi eutson:

—Itxi egistak emen iñor bizi eztan lekuan, emen, atxarte oneitan gelditzen, etxe orok eta gizonen arteko bizitzeak beñolako zoritxaŕen oroipena baŕiztetan yaustek-eta.

*Ikaskizuna:* Ipuintxo aunek urietan gaiztoakaz baño lekaroan bakaŕik naigabe barik bizi oba dala dirakusku.

LAŔAKOETXEA'TAR B.



# EUSKAL ESNALEA

1928

**JORAILA**

292'g zenbakia